

ONGi

Publiko zabala denez, hainbat publizitate-kanpaina egingo ditugu, bezeroaren adinaren arabera.

Nerabeekin, gure sare sozialetan (Instagram, Tik Tok, Twitter...) aktibo egotea izango dugu ardatz. Ikastetxeetara hitzaldiak ematera joatea, gure proiektua sustatzeko eta gazteak gure zerbitzuen garrantziaz kontzientziatzeko. Beste aldetik, kaleetatik publizitate-kartelak jarriko ditugu, jendeak ikusteko eta informazio pixka bat izateko.

Ongintzako ekitaldietan, lasterketetan, postuetan eta abarretan eskeiniko dugun aplikazioaren merchandisinga ere egingo dugu. Hortik lortzen ditugun irabaziekin, %30 GKEentzat izango da eta geratzen den ehunekoa gure soldatarentzat izango da, negozioari eusteko.



Banaketa kanalean, kanalaren jabetza barruan berezko kanala edo zuzena erabiliko dugu. Kanal laburra da bitartekari bat baino ez dagoelako. Gure kasuan ez da beharrezkoa bitartekarien laguntza. Izan ere, gure GKE-ak zuzenean nahi dituzten produktuak jasoko dituzte, haien garraioekin edo posta bidez.



Etorkizuneko bezeroek gure zerbitzu guztien berri izango dute; izan ere, gure sareetan dena argitaratuko da, mundu guztiak ikus dezan. GKEen argazkiak eta bideoak, produktuak eta parte hartzen duten pertsonaia publikoak. 24 orduko bezero arreta zerbitzu bat ere eskainiko dugu, zalantzak eta arazoak konpontzeko. Honetarako, korreo elektronikoko bat eta telefono zenbaki bat izango dute haien esku, arazoren bat egotekotan gurekin kontaktuan jartzeko.